

## 9. PRAKTIKA: Mexikoko analisi geografikoa

Mexikoko herrialdea dugu aztergai eta kokapen minimo bat izateko, Amerikako kontinentearen zentroan kokatzen dugu, hortaz, Zentro Amerikan dagoela esaten da. Bere mugakideak, Amerikako iparraldean kokatzen den Amerikako Estatu Batuak herrialdea genuke, hegoaldean Guatemala eta Campeche izeneko herrialdeekin muga egiten du, ekialdean Mexikoko Golkoa genuke eta mendebaldean Ozeano Barea aurkitzen dugu. Aztergai dugun herrialdearen hiribura, Mexikoko Hiria da.

Behin herrialdea kokatu dugularik, bere erliebea, klima eta biomak aztertuko ditugu. Erliebeari dagokionez, Mexiko lurralde menditsu da. Mendi hauetako askok, sumendiak dira, herrialde bakoitzan altitude desberdina izanik, hala nola, Mexikoko mendebaldean zein ekialdean mendikateak ditugu: ``Mendebaldeko Sierra Madre`` (herrialdeko iparraldetik hegoaldera joaten dena) eta ``Ekialdeko Sierra Madre``. Gainera, Mexiko hegoaldean, ``Eje Neovolcanico`` izeneko sumendi lerro bat aurkitzen dugu, zeina lurraldeko mendebaldetik ekialdera igarotzen den. ``Eje Neovolcanico`` sumendi mendikatea, sumendiz osatua dago; Mexikoko mendirik altuenak bertan kokaturik, besteak beste, Pico de Orizaba (5.636 m), Popocatépetl (5.462 m)...Jatorri bolkanikoko lurraldea denez, lurrikarak eta sumendi pizteak egotea ohikoa da. Mexikon lautada nagusia aurkitzen dugu (Ekialde zein Mendebaldeko Sierra Madre ondoan eta Eje Neovolcanicoarekin muga egiten du) Mexikoko ia lurralde guztia hartzen duen. Altitudea azterturik, iparraldeak 900-1200 metroko altitudea du, hegoaldeak 2000-2700 metroko altitudea du. Ibaiei dagokienez Mexikon 42 ibai nagusi daude eta hiru toki ezberdinetan itsasoratzen dira: mendebaldeko ibaiak Ozeano Barea, ekialdekoak Ozeano Atlantikoan eta besteak lurraldeko bereko lakuetan. Azkenik, Mexiko Sonorako basamortua (ipar-ekialdea eta AEBko hego-ekialdea hartu) eta Chihuahuako (Mexikoko erdialdea hartu) basamortuak ditu beregain. Lehengoan ez dira zuhaitzak aurkitzen eta bigarrean, mendikateez osatutako harana du bere baitan, mikroklima fresko eta hezeak sortuz eta eraginez zuhaitzak haziz.

Klima aztertzerako orduan, Mexiko dibertsitate klimatiko handiko lurraldea dela aipatu behar da. Lurraldeko, %73a klima epela subhezea da, iparraldeko, erdi eta ekialdeko haran altuetan kokatuta. %21a bero subhezea da, hegoekialdean kokatuta. %6a lehorra eta semilehorra da, ipar-ekialdean kokatuta eta herrialdearen, %0.16 klima hotzekoa da, sumendietako leku altuetan kokaturik. 8 klima mota bereizten dira Mexikon, klima tropikal euritsu eta mendi gailurretako klima polarraren artean. Urteko batez besteko tenperatura 14,7°C-koa da, tenperatura hotzenak urtarrila eta otsailean ematen dira 3°C inguruan. Tenperatura altuenak apirila eta maiatzean ematen dira 25°C inguruan. Ozeano Barea zein Ozeano Atlantikoa eragina dute kliman, finean, eurialdialdian. Gehienetan euriak erauntsiak, laburrak eta indar handikoak izaten dira, askotan kaskabarrarekin etorriz

Existitzen diren 5 biometatik, basoa, basamortua eta belardia Mexikon aurkitzen ditugu. Prezipitazio zonaldeetan, altitude baxuko lurraldeetan (Mexikoko hegoaldean bereziki) basoak aurkitzen ditugu. Bertan prezipitazio irregularrak gertatzeagatik sortzen dira, Behen Kaliforniako Sierra de Juarez, Sierra Madren...baso mota desberdinak ditugu: montzoi basoak eta euri ohian ekuatoriala eta tropikala. Lehenengoan, zonaldea zabalagoa da eta zuhaitzek argia har dezaten lehia gutxiago dute, zuhaitzaen altuera txikiagoa izatea eraginiz. Bestetik, bigarren motan, landaretza

ugariko zonaldea da, euriaren prezipitazioak erregularrak baitira. Argia hartzeko zailtasunak daudenez, zuhaitzek elkarren artean lehiatzen dira, euren altuera handia izatea eraginduz. Belardiak zonalde hezeetan gauzatzen dira eta belarra nagusitzen da beste landareen artean. Azkenik, lehen aipatu bezala, basamortuak ditugu. Bertan landaretza eskasa da eta klima lehorreko zonaldea dugu.

Geografia fisikoa aztertutik, giza geografia azaltzera pasako gara; geodemografiarantz arituz, Mexikoko (2018ko datuen arabera) 127,575,529 biztanleko herrialdea da, munduko biztanle gehien dituen 10. postua lortuz. Populazio kopurua ulertzeko, XX. mendeko hazkunde demografikoa ulertu behar da; 1900. urtean 13 milioiko populaziotik, 1995. urtean 91 milioiko populazioa izatera pasa zen. Gainera, 1940 urtetik 1975 urtera, Mexikoko %3ko hazkunde demografiko bizi izan zuen, gainontzeko urteetan %2aren gertu kokatuz. Mexikoko iraultza kontuan hartuta, trantsizio demografikoaren lehenengo etapan sartu zen, jaiotze eta heriotza tasa altuekin, hazkunde demografikoa baxua zelarik. Garaiko erreforma ekonomiko, sozial eta politikoak direla eta, Mexiko trantsizio demografikoaren bigarren etapan sartu zen, jaiotze tasa altuak mantenduz eta heriotza tasak izugarri jeitsiz. Hori jakinda, trantsizio fasea, 2. fasean aurkituko litzateke, hots, heriotza tasak jeitsi emandako garapenengatik. Hobekuntzek, bizi itxaropena luzatzea eta jaiotze-tasa igotzea eragin dute. Herrialdearen egoera demografikoa progresiboa litzateke; jaiotze tasa igo, adin tarteak igo eta heriotzak progresiboak dira, bizi itxaropena jeitsiz eta jaiotze tasa igoz.

Hazkunde demografikoarekin batera, hiritartze prozesu bat gertatu zen Mexikon, industrializazioari oso lotua egongo zena. Zerbitzuak, gastu publikoa, enpresa nagusiak... hirietan kontzentratzeak, hauen garapen ekonomikoa suposatuko du, landa eremuko biztanleria hiriara erakarritik. Adibidez, 1900. urtean populazioaren %88a 15.000 biztanle baino gutxiagoa herrietan bizi zen, 1997. urtean ordea, %39a landa eremuan bizi ziren. Hiritartze prozesu honek hiri handien sorrera eragin zuen, hala nola, Monterrey, Guadalajara... Hala ere, Mexikoko hiri nagusia Mexiko D.F. izango da (hiriburua), 20 milioiko populazioarekin munduko metropoli handienetakoa bihurtu egin dena. Mexikoko hiri-sistema, trinkoa eta orekatuta da, hiri handiak zein hauek orekatzeko, hiri ertainak daude. Hala ere, metropoli hauen sorrerak arazoak ekarriko ditu, izan ere, Mexiko herrialde pobre bat izanik, *slums* (*planifikatu gabeko txabola auzoak*) sortuko dira, non biolentzia eta osasun arazoak ugariak diren. Hori alde batera utzita, Mexikoko bi arazo larri ditu: batetik, populazioaren zaharkitzea eta bestetik migrazioa. Populazioaren zaharkitzeari dagokionez, trantsizio demografikoari lotutako arazoa da; orokorrean herrialdearen bizi kalitatearen hobekuntza dela eta, herritarren bizi-itxaropena luzatzen da, zaharren bizitza luzatuz. Honekin batera, jaiotze tasa baxua denez, gazte gutxiago jaiotzen dira eta bizi-itxaropena tasa kontuan hartuz, gizartearen zaharkitzea suposatzen du. Lehen aipatu legez, Mexikoko beste arazoetako bat migrazioa litzateke. Mexikoko mugakideak aztertuz, AEB-ekin muga du eta horrek Mexikoko zein latinoamerikar biztanleak muga pasatzea erabakitzen dute. Datuak aztertuz, XX. mende amaieran 7 milioi Mexikoko bizi ziren AEB. Gaur egun, egoerak okerrera jo du, AEBtik inposatutako lege antimigratzaileengatik.

Giza geografia behin azalduta, herrialdearen ekonomia aztertu beharra dugu; Mexikoko ekonomia, munduko hamaikagarren handiena da, 2.575.206 milioi US\$ko BPGarekin eroste ahalmen parekatuarekin. Azken urteetan %2ko inguruko hazkunde

mantendu du. Sektore ekonomikoeen pisua BPGaren barnean hurrengoa da: lehen sektorea ez da %5era iristen, bigarrenarena %30a gorakoa da eta hirugarren sektorea %65aren inguruko garrantzia dauka. Mexikon industriak pisu handia daukela ikusten da. Mexikoko BPGa *Per capita* errenta 19 900\$ ingurukoa da ( Espainiakoa honen bikoitzaren ingurukoa da eta AEBtakoa hirukoitza). Hori horrela izanda ere, Mexikon ezberdintasun handia dago; OCDEren barneko Gini indizerik altuena daukan herrialdea da 0,459rekin: 50 milioi pertsona bizi dira pobrezian, hots,biztanleriaren, %40tik gora eta biztanleriaren %7,5a (9 milioi inguru), muturreko pobrezian bizi dira. Mexikoko ekonomia, hein handi batean, kanpo merkataritzara zuzenduta dago. OMC (Munduko Merkataritzaren erakundea) eta OCDEren kide da. GGIari dagokionez, Mexiko 2017an 0,77<sup>a</sup> zuen eta bere GGI-D 0,767an dago. Azkeneko indizea kalkulatu, Mexikoko GII 0,37koa da. Ekonomiaren eraginez, globalizazioaren fenomeno gaiztatzen da; mundu mailan ematen den prozesu ekonomiko eta soziala denez, Mexiko bezalako herrialdeak ere pairatzen du: ekonomikoki merkataritza askerako hainbat itun ditu sinatuak beste herrialdeekin, besteak beste, TCLAN (NAFTA ingelesez) deritzoguna merkataritza askeko eremua sortu zuena Mexikok, AEB eta Kanadaren artean 1992 urtean, lurraldearen esportazioak eta inportazioak orekatuz. Beste alde batetik, Mexikoko inportazioei dagokionez, erdia AEBtatik etortzen dira, %20 Txinatik eta %15 Europatik. Hortaz, eragina ekonomikoa izatea, bizi ohiturak aldatzea dakar. Multinazionalak iritsi egin dira globalizazioaren eraginez eta horrekin batera beste hainbat eta hainbat ondorio, hala nola, aberastasunaren kontzentrazioa arlo ekonomikoan, migrazioengatik kultur aniztasun gutxi ematen da, turismoa garapen ekonomikorako lagungarria zaie...

Azkenik, aztertutako alorrak erlazioan jartzean, lurraldearen garapenerako pausoak azter daiteke. Lurraldearen topografia aztertuz, eremu fisikoan eta politikoan eragina du, hau da, Mexikok erliebe malkartsua izateagatik, mendiko klima sortzeaz gain beste klima motetan eragina du, izan ere, mendiek harresi funtzio betetzen dute eta hezetasuna erregulatzen dute. Golfo eta itsasoen presentziak, latitudearekin batera, herrialdearen klima aniztasunean eragiten du. Erliebe malkartsuak aipatu bezala, gizartean eragina du, mendien presentziak, lurralde batzuk baztertuak geratzea eta elkar komunikazioa zailtzea eragin dute. Klima aniztasunak, ekonomian eragina izanen du, lehenengo sektorean batez ere (nekazaritzan), Mexiko mota desberdineko elikagaien ekoizlean bilakatuko delako. Lehenengo sektore honek pisu ekonomiko txikia izan arren, biztanleriaren zati nagusi baten lanbidea da eta sektorearen portzentai handia, pobrezian dago. Era berean, industralizazioak eta bigarren eta hirugarren sektoreen zentralizazioak, landa exodoa eta hiritartze prozesua ahalbidetu duenez, hiri handiak sortu eta era berean indigenen gutxitzea bultzatu zuen, euren burua hirietara mugitzera behartuta ikusirik. Mexiko garapen bidean egon arren, pobrezia orokortua duen herrialdea da eta emigrazio altua duen herrialdea kontsideratzen da. Erronka egoera ekonomikoa egonkortzea litzateke, bertakoek emigrazioa jo beharrean, bertan lan egiteko aukera izateko. Bestetik, indigena eta hiriaren arteko komunikazioa hobetzea komenigarria litzateke, desoreka egoera bortitza lausotzeko. Hobekuntzak izaten ari dituen herrialdea izan arren, aberastasuna zentralizatua egoten jarraitzen du eta slums auzoak asko dira, horren aurrean, gobernuak planifikatu gabeko txabola auzoak deuseztatu beharko lituzke, jendeari oinarritzko etxebizitza eskainiz. Azkenik, industriaren garapenak ekartzen dituen ingurumen arazoei aurre egiteko, plangintza ekologikoa izatea komeniko litzaioke.

Belate Amondarain Casado.